# Antxiñako fotografixia



Argazki zahar hau Joxe Fernadezek eskuratu dosku.

## Gerra aurreko Arantzazu

Oraintxe be teillatuak konponketan jardun arren, makiñatxo bat obra burutu da **Arantzazu** aldian argazki hau egin zan ezkeroztik. Aldaketa haundixenak eliziak izan zittuan, 1950-55 urtietan hor agiri dana bota eta gaur egunian ezaguketan dogun eliza modernua jaso ebeiñian. Absideko oñarri arkodun hori bakarrik geldittu da. Komentuak be izan dittu ikutu batzuk: pisu batzuk gehittu, bentana batzuk atara eta barrutik barrikuntza sakon samarrak, baiña egittura aldetik hemen agerketan dan itxuria gorde dau gutxi gora-behera.

Eskuman eta goiko aldian agiri diran hiru ostatuok (**Hospederixia**, **Milikua** eta **Goiko Bentia**) antzera dagoz, kanpotik behintzat. Hospederixiaren atzekaldiori da gehixen aldatu dana. Zihero desbardin daguena erdixan eta ezkerraldera ikusten dana dogu: izan be, estudiante gaztien **Kolejixo** zaharra urte asko eztala ezkutau zan eliza aurreko plazia zabalketako. Lehen aittatu dogun absidia egittiari 1921an ekin otzailla kontuan izanda, fotografixa honek 60-65 bat urte euki leike.

J.E.

BITTOR HALTZARIAK

FAGOR SUKALDE ETA ELEKTRAGAILUAK

PROIEKTU BIDEZ,
ETXERAKO HALTZARI GUZTIAK

S. Lorenzo, 1 eta 42. OÑATI
Tfnoa: 78 16 08 eta 78 34 21 - Faxa: 78 34 21

UNZURRUNZAGA MINTEGIAK



- mendiko landareak
- garbiketak
- plantazioak
- podaketak
- gabon zuhaitzak

Olakua, 16-1ºD - OÑATI - Tfnoa. 78 21 64